

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2020KO AZAROA

Euskal AEko industria-jarduerak % 7,4 egin zuen behera 2020ko azaroan


Aurreko hilarekin alderatuta –2020ko urria–, industria-produkzioaren indizeak hilean ez du aldakuntza esanguratsurik izan (% 0,0)

Euskal AEko industria-produkzioak % 7,4 egin zuen behera 2020ko azaroan, aurreko urteko hil beraren aldean, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek emandako datuen arabera. Ondo ondoko urte arteko bederatzigarren tasa negatiboa da (2020ko martxotik).

Azaroa 2020ko urriarekin alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioak, urtaroen eraginik gabe, ez du aldakuntza esanguratsurik izan (% 0,0).

2020ko lehen hamaika hilen balantzearen itxieran industria-jardueraren uzkurdura metatua % 13,9koa izan da.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2020ko azaroko indizearen bilakaera 2019ko azaroaren aldean negatiboa izan da industria-sektore handi guztietan. *Energiak* % 9,6 egin du behera, eta bertan sartzen dira, besteak beste, energia elektrikoaren hornidura eta petrolio-fintzea. Urte arteko % 6,3ko beherakada izan dute *Tarteko ondasunek*; haien artean daude metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa. *Ekipo-ondasunek* % 6,2ko beherakada izan dute. Haien artean honako hauek nabarmendu behar dira: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren

eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa eta ontzigintza. Azkenik, *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 5,2 egin dute atzera.

Azken horien artean, % 5,9 egin dute behera *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek*, eta % 2,6 *Kontsumo-ondasun iraunkorrek*. Honako hauek dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruan sartzen diren jarduerak: elikagaien fabrikazioa, prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa, eta janzteko arropen jantzigintza. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* epigrafean, bestalde, altzarien eta etxeko aparatuen fabrikazioaren jarduerak daude.

Hil arteko aldakuntzak, urtaroen ondorioak zuzendu ondoren, ez du zeinu negatiborik erakusten industria-sektore handietako batean ere. Hala, *Energiak* % 10,2 egin du gora, eta *Ondasun-ekipoek*, % 0,3. *Kontsumo-ondasunetan*, oro har, % 0,1 handitu da ekoizpena, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 3,1 egin baitute gora, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 0,6 egin baitute behera. *Tarteko ondasunek*, bestalde, ez dute aldakuntzarik izan (% 0,0) azaroan, 2020ko urriaren aldean.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Azaroa

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Aza2020 / Aza2019	A(Aza2020) / A(Aza2019)(*)	Aza2020 / Urr2020	Urr2020 / Ira2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-7,4	-13,9	0,0	0,7
Araba/Álava	-5,3	-13,5	-1,3	0,9
Bizkaia	-10,1	-16,4	1,1	2,0
Gipuzkoa	-5,9	-11,6	-0,3	-0,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-5,2	-7,1	0,1	-0,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-2,6	-14,3	3,1	5,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-5,9	-5,4	-0,6	-2,1
Ekipo-ondasunak	-6,2	-13,2	0,3	2,6
Bitarteko ondasunak	-6,3	-16,5	0,0	0,4
Energia	-9,6	-11,4	10,2	-0,6

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskadiko industrian pisurik gehien duten sektoreen artean, 2020ko azaroan urte arteko aldaketetan portaera positiboa izan duen bakarra *Kautxua eta plastikoa* izan da, % 1,2 egin baitu gora ekoizpenean. Beherakada handienak izan dituzten sektore pisutsuenak, berriz, egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren, honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 14,4 egin du behera); *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 10,6 egin du behera) eta *Elikagai, edari eta tabakoaren industriak* (% 9,6 egin du behera).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-10,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-14,4
09 - Kautxua eta plastikoak	1,2
13 - Makineria eta tresneria	-4,2
14 - Garraio-materiala	-5,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-9,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-3,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-3,8

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurralde historikoen arabera, azaroan industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan. Hala, Bizkaian % 10,1 egin du atzera ; Gipuzkoan, % 5,9, eta, azkenik, Araban, % 5,3.

Hilen arteko terminoetan, 2020ko azaroa 2020ko urriaren aldean, eta urtaroengatik ondorioak atera ondoren, honako hau ikusi da: Bizkaian ekoizpenak % 1,1 egin du gora. Araban, berriz, % 1,3 egin du behera eta Gipuzkoan, % 0,3.

INFORMAZIO-OHARRA

Egutegiaren eta serieen desestazionalizazioaren eraginak zuzentzeko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina jaso dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, azaroko indizea laginaren % 90,87ko estaldurarekin kalkulatu da –haren informazioa abenduan jaso da–.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62